

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hamahiru hautagai finalistek izango dute solidaritatearen aldeko 'Nafarroa' Nazioarteko XVI. Saria irabazteko aukera

Nafarroako Gobernuak eta Laboral Kutxak eskainitako saria 25.000 eurokoa da

Osteguna, 2018.eko uztailak 26

Solidaritatearen aldeko 'Nafarroa' Nazioarteko Sariaren XVI. edizioan guztira 13 hautagai finalista izango dira aurten. Saria Nafarroako Gobernuak ematen du Laboral Kutxarekin elkarlanean, eta epaimahaia irailiko lehen hamabostaldian bilduko da aurkeztutako aukerak aztertu eta saria nori eman erabakitzeko. 25.000 euroko saria urrian emango da.

Nazioarteko sariaren helburua da Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko egindako lanarengatik edo ibilbidearengatik nabarmentzen diren pertsonak, GKEak edo erakundeak saritzea. Helburu horiek agertzen dira Nazio Batuen agendan hemendik 2030. urtera begira, pobrezia-arekin amaitze, desberdintasunaren eta injustiziaren aurka borrokatze edota aldaketa klimatikoari aurre egite aldera.

Edizio honetan, hautagai hauek izango dute saria eskuratzeko aukera: Garapen Ekonomiko Sozialaren Elkarte (ADES), El Salvadorren giza eta eskubideen garapenean egindako lanarengatik edota pobrezia-aren aurka borrokatzeagatik edo nekazaritza iraunkorra eta elikadura-burujabetza sustatzeagatik; ASMUJERES, El Salvadorren feminismoen eta jabe-kuntzaren inguruan egindako lanarengatik; Manabi Elkarte, Guatemalan, Ekuadorren, Espainian eta Frantzia sustapen eta giza eskubideen eta hezkuntzaren arloan egindako lanarengatik; Movimiento Sin Tierra Brasil (MST), elikadura-burujabetza eta elikagai osasungarrien ekoizpen garbian egindako lanarengatik; eta Kolonbian Indarkeria Biktimak Artatzeko Asturiasko Programa, PAV-DDHH, Kolonbiako indarkeria-biktimak herrialde horretan nahiz Espainian hartzeko egiten duen lanarengatik.

Halaber, honako hauek hautatuak izan dira: The Halo Trust, Kolonbian, gatazka-zonan edo gatazka ondorengo zonan berreraikitze-lanetako ekintza humanitarioarengatik; Sao Pauloko Uren eta Energia Elektriakoaren Departamentua, Brasilen, garapen ekonomikoan eta iraunkorrean egindako lanarengatik; Agua de Coco Fundazioa, Camboyan eta Madagaskarren burutzen duten jarduerarengatik haurtzaroarekin eta nerabe-zaroarekin eta osasun integralarekin loturiko gaietan; Emakume afrikarrak eta Giza Eskubideak: Theresa Kachindamoto, Hulo Guillabert, Victoria Nyanjura eta Qumou Sall-Seck, Malai, Senegal eta Ugandan eta Malin egiten duten lanarengatik, emakumeen eta haurtzaroaren eskubideen eta gatazken aurreko bakearen inguruan; eta Solidaritatearen Eskualdeko

Batzordea, Bakearen aldeko Emakumeen artean, Senegaleko Casamancen (CRSFPC/USOFORAL), bakearen eta giza eskubideen alde egiten duten lanarengatik.

Hautagaien azken taldea honako hauek osatzen dute: Nasser Zefzafi, HIRAKeko presidentea, RIFen mugimendu herrikoia, Rifin (Marokko) desberdintasunen kontra eta hobekuntza sozialen alde egiten duen borrokarengatik; Tun Khin, Burmese Rohingya erakundeko lehendakaria, nazioarteko errefuxiatuekin eta Myanmar-ekoekin egiten duen lanarengatik; eta PROEM AID, professional emergency aid, kostetan larrialdi-jarduerak eta laguntza humanitariokoak burutzeagatik.

Epaimahaiaren epaia iraileko bileraren ondoren emango da ezagutzera. Aurreko edizioetan bezala, saria ekitaldi ospetsuan entregatuko da, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria eta Laboral Kutxako lehendakaria buru dituela, eta hori urrian izango da.